

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko uztaila • 293. alea

AZUKARI!



PUB INTXIXU



Jaietan
musika
eta mojitoa
gauero!

Zabalik goizeko 11etatik goizeko 7rak arte

Euskalzaletasunaren alde:



PAFOSUB OHARRUOKA, S.A.

Elizpe
Hortz klinika

Gare zerbitzuak:

- Ortodontzia ikusizina
- Implantak

DONANIKO BERRIKUERTAK
FINANZAKETA ZURE NEURRIA
KONFIGURAZIOK GABAKO KURRERONTUA

MUTUALIA, PADE (haumen arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizbun 3 beheko, Sorluze

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



Disenua eta Formena

Pellegona Amillago, n° 5

Tel.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak


ARMENDIA
JATETKEA



Ezozi Auzoa 11
20590 Sorluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Beranduegi?



Unai Txurruka Eneko Beretxinaga

Aupa Eneko! *Atariko Berba* honek berriz be korrika eta preska idaztia tokau jaku. Beti berandu ei gabiz... alperrontzi eta desastre galantak gara... edo berandu ibiltze hori gure nortasunaren parte da? *Beranduzaliak* ete gara?

Pentsatzen jarritta ez gara berandu ibiltzen garan bakarrak. Udia be aurten berandu heldu da. Ni ondio lanian nao eta eskertzen dot. Hala be, etxatan gustauko holako egualdixakin oporretan egotierik.

Nere inguruan be badirudi dana berandu dabilela. EHko kontu zahar-berrixak bere horretan dirau azken urtietan. Batzuk aurrera eta aurrera gabiz baina benetan bestia bultzatzia lortu barik. Panorama soziala ez dao bereziki hobetzen... eta ez dirudi hobetuko danik be. Ezkerreko alternatiba iraultzailiak berandu datoz gurera. Agian ez dira existitzen... edo igual (ber)asmatu ein bihar dittugu... edo egokittu... eguneratu, ez dakit.

“Agian denboria antolatzeke moduaz berpentsatzia tokatzen jaku”

Kuriosua da abiadura handiko gizarte honetan, edozer gauza atzoko nahi izaten dogun garai honetxetan, berandu ibiltze hori zeinen ohikua (eta sufritua) dan. Hala be, *Fast Food* aren garaixotan bada nahita *Slow Food* aren aldeko apustua eitten dabenik.

Agian denboria antolatzeke moduaz berpentsatzia tokatzen jaku. Geu gara berandu gabizenak ala gizarte hau da azkaerregi doiana? Eskema zaharrak irauli eta urgentsia daken kontu guztieri heltzeke beste praktika batzuk topatzia onena. Eta holan:

Baina alferrik zen berandu dabilta / ez dute ezer lortuko honez gero / palazioak lurrera doaz gartzeleko hormak pitzatu egin dira / eta gu libro gabiltza kaleetan tirantezko galtza laranjaz jantzirik / libro, libro

Kaixo Unai!

Lehen be ordurako ez ibiltzian fama ederra dakat lagun eta famixakuen artian, beraz, pare-pareko gaixa etara dozula esango neuke. Dana dala, gaurkuan arazo pertsonalekiko distantzia pixka bat hartuta erantzuten saiatuko naiz, izan be denborian kudeaketiaz egin dozun proposamena oso interesgarria iruditzen jata. Gaixaz oso proposamen interesgarriak badare, ezta kitt hemen espazio nahikua eukiko doten ezer txukun azaltzeko, baina hartu deigun denbora patxadaz hontaz berba egiteko.

Ba omen da Senegalen esaera bat, “persona txuriak erlojua du, denborarik ez” diñuana. Gure joerak mendebaldeko bizimoduan testuinguruan kokatu bihar genittuzte, hasteko; ez deigun pentsatu mundu guztiak gure moduan jarduten dabenik mundu guztian.

Inork ez dakigu zenbat urtez biziko garan. Danok dakigu baina, urtiak zenbat egun dauzkan eta egunak zenbat ordu. Norberak jakingo dau egunak dauzkan ordu horretatik zenbat denbora eskaintzen dotsan bizitzeko bihar dogunari; etxe barruko zein kanpoko lanari, zaintzari, gizartian onurarako ekintzeri. Lehentasuna etxetik kanpoko lanari ematen jako, hori da balixo materialak pilatzeko aukera emoten doskuna eta, beraz, exitosuena. Logika horrek funtzionatu deixan etxe barrukua be ezinbestekua da, ikusezin bihurtzen dan arren, ezinbestekua. Eta, orohar, zeinek egiten dau zer? Zeren arabera?

“Norberak jakingo dau egunak dauzkan ordu horretatik zenbat denbora eskaintzen dotsan bizitzeko bihar dogunari”

Norbere lehentasunez eta aukerez badaukagu zer susmatu. Susmatu, egiten dogun ezer ez dala gukerabakixa, aukera-berdintasuna sexuak, arrazak, generuak, etniak edo sexu-joerak, bestiak beste, baldintzaten dabela; susmatu ez garala erabat libro, menpeko izateko modua aukeratzeko solik garala libre; susmatu, proposamenez, alternatibez eta geure buruaz.

Jendarte justu eta ekitatiboago bat nahi baldin badogu, harremanak horizontalago eta solidarioaguak izango dirana, bide horrek erabateko enfrontamentua eskatzen dau egungo tendentziekin. Egunerokuan egiten dittugun gauzetan, bizitzeko moduan. Berandu, bai, baina garaiz gabiz ondiok.

Gutunak

Soraluzeko
EAJ-PNV Udal
taldea

.EUS domeinua

Uztailaren 3an izandako Euskara batzordean, Soraluzeko EAJren udal taldeak, Udalaren domeinua, .EUS domeinu bezala erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko, eman beharreko pausoak eman ditzala eskatu genion udal gobernari.

Pentsatzen dugu, euskararen normalizazioa aurrera eramateko inguruan ditugun baliabide eta tresna guztiez baliatu behar garela eta puntu.eus domeinua gizarteratzen laguntzea ere, herri-erakundeen eginbeharra dela.

Euskaldunon komunitatea trinkotzea ezinbesteko pausua da hizkuntzaren erabilera areagotzeko. Azken inkestean arabera, euskaldun kopuru altuena hiri handietan dago eta horrek zailtasun handiagoak sortzen ditu euskaldunen arteko harremanak sendotzeko garaian, populazioa handiagoa delako eta sakabanaketa ere, handiagoa izan daitekeelako.

Hori horrela, puntu.eus domeinua martxan jartzeak, bai komunitate birtuala, baita erreala ere, elkartzeko, lagunduko duela pentsatzen dugu, are gehiago, gaur eguneko sare sozial deritzotenak hartu duten indarra ikusita.

Prozesu honen abiarazte-aldia datorren irailaren 16tik azaroaren 18ra izango da eta tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiek abenduaren 3an aktibatuta egon beharko dute, hain zuzen Euskararen Nazioarteko Egunerako. Espero dugu, egun horretarako guk ere, gure etxekolanak eginda edukitzea.

Soraluzeko Gure
esku dago

Eman iritzia

Handia da egin duguna; Durangotik Iruñera 150.000 milatik gora lagunek elkarri eskua ematea lortu dugu erabakitze eskubidearen alde. Tartean 460 plaentxiar. Asko bagara ere, oraindik askoz gehiago izatea lortu behar dugu, izena eman dugun bakoitzak erabakitze eskubidearen aldeko eragile bihurtu eta lanean jarraitu behar dugu indarrak batu eta helburua lortu ahal izateko. Herritarren esku dago, gu guztion esku, horrela izatea eta horretarako lehenengo gauza, hemendik aurrerako bidea zein izango den denon artean erabakitzea da. Aldarrikatzen dugun erabakitze eskubidea praktikara eramateko oinarririk hasi beharra dago; eta hori da egingo duguna, hemendik irailaren 5era arte ekarpenak eta proposamenak jasotzeko prozesu partehartzaile bat martxan jarriko dugu, eta oraingoan ere herritarrok izango gara protagonista.

Parte hartzea oso erraza da, galdetegi txiki honi erantzun eta soraluzekogureskudago@gmail.com helbidera bidali; edota, zure ekarpena idatzi eta Iratxo kioskoan jarriko dugun gutunontzian sartu, besterik ez duzu egin behar. Irailaren 5era arteko epea izango dugu epea proposamenak egiteko.

Hauxe galdetegia:

1. Zure iritziz, aurrerantzean, zein pausu eman behar ditugu erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko?
2. Gure etorkizun politikoari buruzko erreferendum bat egingo balitz, zein galdera egingo zenieke euskal herritarrei?
3. Zure iritziz, zein dira Gure Esku Dago herritar mugimenduaren zeregin nagusiak?
4. Irailetik aurrera erabakitze eskubidearen alde lanean jarraitzeko zer egingo zenuke Soraluzen?
5. Beste zerbait esan nahi? Hementxe duzu aukera:

Eskerrik asko!



Bittartetik



Ariane Uramuno

Frackingstein

Ipuin beldurgarri bat kontatuko dizuet, adi! Ameriketako Estatu Batuetan sortu, Gasteizko mendietan bizitokia jarri eta Euskal Herri osoan zehar ibili nahi duen munstro izugarria da Frackingstein, Fracking esaten diote lagunek, fraka beltz eta gorbatadunek. Lurpean dauden gas partikulez elikatzen da; zulo luuuuzeluzek egiten ditu luraren barrualdera, eta txixa oso toxikoa barruan lagata eta metanozko puzker kaltegarriak aieratuta, gasa ateratzen du. Jan eta jan, ez da asetzen. Horrela, sabela eta poltsikoa bapo bete eta bere bizitokia txikituta lagatzen du. Ur edangarria zeharo kutsatzeko gaitasuna dauka, zeharo eta betiko. Frackingsteinek ez dauka errukirik, eta bere lagunek ere ez. Bukatutakoan, badoa beste lekuren batera. Frantzia eta beste herrialde batzuetan debekatu egin diote sartzea. Katalunian eta Nafarroan ere ez dela ongi etorria esan diote. Han eta hemen sinadurak batzen ari dira gure inguruan. Baina badakizue zer? Soraluzen egonaldia egiteko baime-na eskatu diola Jaurlaritzari. Ezetz asmatu zer erantzungo duen? Eta guk? Laga egingo diogu? Gurera etorri eta herria suntsitzen lagako diogu? Ez dut ipuinaren bukaera ezagutzen baina munstroa denon artean desagerrazi nahiko nuke.

“Boxeoa dantza egitea da baina musikarik gabe”

Ixa Rodriguez

Santiago – Santa Ana jaietako txupinera



Ixa Rodriguez, boxealaria eta jaietako txupinera.

Uztailaren 24an, arratsaldeko 20:00etan egingo dute eztanda Santiago – Santa Ana jaiak. Boxeo munduan egiten diharduen lana eta herriari egiten dion ekarpena aitortzeko Ixa Rodriguez (Soraluze, 1982) boxeolariekin akordatu da jai batzordea eta bera izango da, Juan Mari Oregirekin batera, udaletxeko balkoitik jaiak hasiera emango diena.

Nola jaso zenuen albistea? Zer pasatu zitzaizun burutik?

Sorpresa izan zen, baina izugarri esker-tzen diet nirekin eta nire taldearekin akordatu izana. Udaletxeko balkoian Juan Mari Oregirekin batera egongo naiz eta ohore handia izango da niretzat, herrian urte luzez txirindularitzaren aldeko zale-tasuna bultzatu du eta niri, boxeogatik bere antzera jardutea gustatuko litzai-dake; ilusio eta konstantzia berberekin.

“Faltan botatzen dut lehen egiten zen baltsen jaitsiera”

Nola ospatuko dituzu aurten jaiak?

Boxeoko prestaketak direla eta gabeko giroa alde batera lagata daukat. Hala ere aurtengo jaiak bereziak izango dira eta goizeko giroan murgiltzea dut pentsa-tuta; jende artean ibiltze hori asko gus-tatzen zait. Faltan botatzen dut lehen egiten zen baltsen jaitsiera baina pozik nago, aurten boxeo jaialdia ere izango dugulako.

Zuk bultzatuta gainera. Nola okurritu zitzaizun?

Herrian boxeoarekiko dauden mesfi-dantza eta iritzi txarrak aldatu nahi ditut, eta herritarrei kirol honen benetako esentzia zein den erakutsi nahi diet. Herriko merkatari eta tabernariak izugarri lagundu didate eta horrek erakusten dit herrian interesa badagoela kirol hone-kiko.

“Herriko merkatari eta tabernariak izugarri lagundu didate”

Zer da gaur gabean ikusiko duguna?

Jaialdia gaueko 22:00etan hasiko da eta amateur mailako bederatzita borrokaldi, eta profesionaletako bat jokatuko ditu-gu; lau emakumezkoen artekoak eta bost gizonezkoenak

Kirol hau ondo ezagutzen ez dutenei, boxeoa zela aurkeztuko zenieke?

Dantza egitea da baina musikarik gabe. la nork gehiago eman eta gutxiago jaso-tzen duen jolasten gara baina beti erres-petu handiz eta kiroltasunez. Etor daite-zela gaur eta ikus dezatela ringean eta baita harmailetan ere zer nolako emo-zioa bizitzen den.

Zuk behintzat pasio handiz bizi duzu

Fondoko lasterketa baten modukoa da boxeoa niretako, erritmo onean era-

man ezker urrinera hel zaitezke. Lehiak erakarri ninduen hasieran, baina bizimo-dua zeharo aldatu zitzaidan eta kateatuta nago, ez dut beste ezertan jardun nahi. Entrenatzaile izateko titulua ateratzen di-hardut eta nire ametsa hori da, ringeko irakasle izatea.

Eta Boxealari moduan, epe laburrean, zein erronka dituzu?

Aurten egindako denboraldiarekin oso pozik nago. Asturiasen Espainiako txapel-dun ohiaren aurkako borrokaldia irabazi nuen eta Euskadiko txapelketa ere irabazi dut. Gaur gauean Espainiako txapel-dunaren aurka jardungo naiz eta gero oporrak hartuko ditut. Neguan Eus-kadiko eta Espainiako txapelketan maila ona erakusteko prestatuko naiz.

“Nire ametsa ringeko irakasle izatea da”

Kamara aurrean jardundakoa zara. Nola daramazu kalean ezaguna izatea?

Nire lorpenengatik naiz ezaguna, eta horregatik aukeratu naute suziria jaurti-tzeko. Harrotasunez betetzen nau hor-rek. Konkisen lehiatzeak ere lagundu dit boxeoa zabaltzen eta ahal diren eta bozgorailu guztiak erabiliko ditut kirol hau gizarteratzen jarraitu ahal izateko.



Gaztetxea zabalduko dute argia berrezarrita



Gaztetxeko kideak sabaieko lanak zehazten.

Maiatzean argia moztu zietenetik itxita egon da Gaztetxea. Argindarraren instalazioan arazoak zirela eta, lberdrolak argindarra moztu zien maia-

tzean. Argindarrrik barik hozkailuak eta bestelako tresna elektrikoak pizterik ez zegoenez, arazoa konpondu arte Gaztetxea ixtea erabaki zuten.

Gazte asanbladakoek azken asteotan egindako gestioek fruitua eman dute, eta instalazioan egin beharreko aldaketak egin dituzte. Ondorioz, jaietarako argindarra berrezarri eta Gaztetxea normaltasunez zabalduko dute berriz. Barrako ordutegia honakoa izango da: 12:00-15:00 bitartean eguerdian eta 19:00etatik aurrera iluntzean. Horrekin batera, sabaiko itogin arazoa konpontzeko Gipuzkoako apezpikutzarekin akordioa ixtear daudela ere jakinarazi dute. Jaien ostean sabaia konpontzeko lanei ekiteko asmoa dute.

FotoNotizia



Astoarekin Ondarrutik Altsasura eta buelta

Astoa lagun zutela, Ondarruko udalekuetako gaztetxo eta begirale kuadrila pasatu zen herritik martitzenean. Altsasura bidean, ibilbidearen zati batzuk mendiz eta beste batzuk errepidez egingo dituzte, eta ondoren bueltako bidea egingo dute berriz. Ondarrutarak...



Motzean

Tuberkulosi agerraldia kontrolpean da

Edurne Bikuña, Gipuzkoa mendebaleko tuberkulosiaren kudeatzaileak adierazi du Soraluzeko tuberkulosi agerraldia "hasieratik kontrolpean egon dela" eta gaur egun "arriskurik ez duela suposatzen". Antibiotikoarekin tratatzen den infekzioa da tuberkulosia eta hainbat sintoma eragin ditzake: eztula, nekea, flemak... Soraluzen tuberkulosi protokoloa martxan jarri eta gaixo daudenak edota arriskuan daudenak tratamenduan daudela gaineratu du.

Liztor asiaticoak herrian

Uztailaren hasieran liztor asiaticoak egindako erlauntza kendu zuten Ibarrola baserriaren ondoko txabolako sapaetik. Erlauntz txikia zen oraindik baina Bergarako udaltzaingoak etorri behar izan zuen kentzera. Liztorrek kalte handia eragiten dihardute bertako erlearen populazioari eta kome ni da erlauntzen baten berri izanez gero, udaltzaingoari jakinaraztea. Hauek Debemenei deitu eta protokoloa martxan jarriko dute.



Udal zerbitzuetako udako ordutegiak

Udako oporrak direla eta Arane kiroldegiak uztailaren 24an itxiko ditu ateak eta irailaren 1ean zabaldu. Ikastaroak irailaren 15ean hasiko direla jakinarazi dute arduradunek. Udaltzaingoa astegunetan 7:00etatik 21:00ra eta zapatuetan 7:30etik 19:30era jardungo da eta liburutegia abuztuan itxita egongo da.

Fracking-aren kontra sinadura bilketa

Frackingaren aurkako herritar ekimenak sinadurak batzen jardun dute herrian azken asteotan. Arduradunak gustora azaldu dira herritarrengandik jaso duten erantzunarekin, eta sinadura "asko" jaso dituztela jakinarazi dute, "adin eta pentsakera guztietakoak". Ekimenaren helburua da 30.000 sinadura batzea Gipuzkoan, legebiltzarrean aurkeztu eta alderdi politikoak gaiaren inguruan eztabaidatu eta posizionatzera behartzeko. Frackinga lurrazpitik gasa ateratzeko sistema da, "oso kutsakorra" herritar ekimen honen esanetan. Dagoeneko zundaketak egiteko baimenak eskatu dituzte Gipuzkoako lurraldearen %40an, Deba baila eta Soraluez barne.

Jaia eta erromeria Karakaten

Dolmenen Ibilbidea ezagutzera emateko asmoz, irailaren 14an, domeka, Karakatera igoera eta erromeria antolatu dituzte Debegeak eta Udalak. Egun berean Arribiribilletako menhirra zutik jartzeko egin diren lanen berri emango dute eta gaztetxoek, antzinako jolasak erakutsiko dizkiete. Egun osoan zehar bertsolariak, musika, sagardoa, salda eta txorizoa izango dira. Bisita gidatuak bestetik irailaren 21, 28, eta urriaren 5 eta 12an Dolmenen ibilbidean zehar egingo dira eta Debabarreneko VI. BTT martxa urriaren 19an.



Tuperrak erabiltzeagatik, saria

Dagoeneko 200 herritarrek baino gehiagok bat egin du Ontziratu Zaitex kanpainarekin, haragi eta arraina erosteko tuperra erabiltzearekin. "Herritarrek jarrera ona azaldu dute ekimenarekiko, eta orain, gure ohiturak pixka bat aldatu eta erosketak tupperrarekin egitea da erronka", Alkarrekin Soraluez Eginez prozesuko Jasangarritasun taldekoen esanetan. Tuperrarekin erosketak egitea saritzeko 50 euroko kontsumo-bonoak zosketatuko dituzte, eta lehenengoa uztailaren 28an egingo dute.

Ingurumen Egunaren balorazio positiboa

Jasangarritasun taldeak positiboki baloratu du uztailaren 5ean egin zen Ingurumen Eguna ere. Egun guztian zehar azoka ekologikoan eta zenbait produktu ekologiko egiten ikasteko tailerretan sortutako giro ona eta izan zen



Arraindegian erosketak tupperrarekin egiten.

parte hartzea nabarmendu dute. Gaueko Kantu Afaria ere aipatu nahi izan dute, parte hartu zuten 80 lagunek egindako garbiketa kolektiboa goraiatuz, "herri afariak modu garbi eta jasangarrian egin daitezkeela ere demostratu dutelako".

Eguneko zentroa datorren urteko irailean egongo da erabilgarri

Hart Arluziaga alkateak eta Gizarte Politikako foru diputatua den Ander Rodriguezek eguneko zentroa egiteko hitzarmena sinatu zuten joan zen astean. Udalak Estaziño kaleko lokala (200 m²) lagako dio Aldundiari, eta honek 409.228 euroko inbertsioa egingo du egokitzapen lanak egiteko. Aurreikusitakoaren arabera, zentroak 2015eko irailean zabalduko ditu ateak. 20 plaza izango ditu, eta jarduera terapeutikoak eta errehabilitazioa egiteko guneak izango ditu, bereziki adinekoendako prestatuak. Gainera, erabiltzaileek garraio zerbitzu egokituak izango dute aukeran etxetik eguneko zentrorako joan-etorriak egiteko.



Arluziaga eta Rodriguez hitzarmena sinatzen.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

JAIAK

Etxekoak estimatuenak

Gustuen arabera ugaritu dira guneak eta ikuskizunak herriko jaietan, baina estimatuenak herrian bertan eta herritarrek ekoiztutakoak dira.



Kubari eskainitako ikuskizunean jardungo duten musikarietako batzuk.

Orain dela berrogei urte Plaza Zaharra zen herriko jaien gune nagusia eta kasik bakarra, bertan antolatzen ziren herri osoarendako bideratzen ziren ekimenak. Gaur egun, hiru edo lau jai-gune daude, eta eskaintza ere askozaz ugariagoa da. Hala ere, badira orain ere ekimen batzuk herritarren gehiengoa batzeko gaitasuna dutenak. Salbuespenak salbuespen, herrian bertan antolatutakoak izatea da ekimenon ezaugarri nagusienetakoa. Herriko jaien erdigunea edo ardatza osatzen dute eta parte hartzerik handiena lortzen. Horieta batzuk dira: txupinazoa, danborrada, bakailao lehiaketa, herri-bazkaria, herriko musikarien kontzertuak... eta bereziki azpimarratzekoa da azken ur-

teotan herritarrek antolatu izan duten ikuskizun artistikoa.

“Kubatar musikaren elementu guztiak batuko ditugu”

Aurten Kuba

Orain lau urte, aurrekontu arazoak zirela eta, udalak Ventos de Saudade fado taldeari deitu zion Mariatxiak ordezkatzeko, eta orduantxe hasi zen guztia. Jon Basauri eta Domentx Uzinek herritarrez osatutako Mariatxi gaua antolatu zuten (RK Zuloren esperientzia inspiratuta). Hurrengo urtean Nafarroa izan zen gaia eta ia Italia. Aurten Kubaren inguruan antolatuko dute ikuskizuna.

Berrogei ta hamar herritar baino gehiagok dihardute musika, dantza eta kantutak entsaiatzen musika eskolako lokalatan. “Aurten udalak baliabide gehiago eman digu, horri esker falta genituen musikariak ekarri ahal izango ditugu eta horrek zuzeneko eta kalitatezko ikuskizuna eskaintzeko aukera emango digu” dio Domentxek.

BITXIKERIA

26an zezenzikleta entzierroa

Zezen modura itxuratutako sei bizikletarekin korrituko dute erdialdeko kaleetan barrena. Gaztetxoendako dago pentsatua, baina nagusiagoek ere parte hartu ahal izango dute.

AURREKONTUA DATUTAN

55.560 € Santiago-Santa Ana eta Andramari jaietarako

- %51 herrian ekoiztutako ikuskizunetara bideratuko da.

Kuba: karibeko doinu tropikalak ikuskizuna, danborradak eta Galtzagorrien zubiko egitaraua laguntzera bideratuko dira partidarik handienak.

- % 50 musikarekin zerikusia duten ekimenetara bideratuko da.

Una noche con los Beatles, Erandioko Banda eta Gaubela taldea dira gasturik handiena suposatzen dutenak.



Danborrada da jaietan parte hartzerik handienetakoa duen ekimena.

Herriko musikariak egitarauan

Herriko musikariek jaietako ekimenetan izango duten presentzia handia izango dute aurtengo jaietan. Txupinazoa eta osteko momentua Galtzagorri txarangak girotuko du eta Kubako ikuskizunetan herriko musikari eta kantari askok parte hartuko dute. Herriko musika taldeek ere izango dute euren momentua, lehenengo egunean zubiko txosna gunean antolatu den jaialdian joko dute Ramblin and friends eta Iragan taldeek. Nagusien eta gaztetxoien danborradako kantua musika eskolako bandak interpretatuko ditu eta bigarren urtez

herriko gaiteroek musikatuko dute Santa Ana eguneko zezena eta Larrain dantza. Frontoiko Gune Musik jaialdian berriz herriko djak ere izango dira, Dj Apa esaterako.

Aitorpena Ixa eta Juan Mariri

Urtero moduan egindako lanaren aitormena egiteko aprobeztatuko da txupinazoa. Ixa Rodriguez Saez (1982, Soraluze) eta Juan Mari Oregi Larrañaga (1956, Soraluze) dira txupina jaurtitzeko aukeratuak izan direnak. Jai batzordekoek bi herritarrok kirol arloan "herriari egin dioten ekarpena" azpimarratu dute, eta "txupina botatzea herri osoaren

izenean egindakoa aitortzeko" modua dela adierazi dute.

Juan Marik 90. hamarkadaren amaiera aldera ekin zion herriko txirrindularitzako probak antolatzeari, orduko Sociedad Deportivaren bitartez. Gaztetatik zekarren txirrindularitzarako afizioa baina bi seme errepidean korritzen hasi zirenean erabaki zuen lasterketak antolatzen hastea. Geroztik, 17 edizio antolatu ditu, beti ere inguruan izan duen laguntzaile sare zabalak lagunduta. Antolaketako lanak lagatzeko erabakia hartu ostean, ikusteko dago orain arrastoari beste inork jarraituko Dion.

Beste programazioa, ofizialean ez datorrena:

24, EGUENA	25, BARIXAKUA	26, ZAPATUA	27, DOMEKIA
<p>16:00etan luntxa Galtzagorri txarangak alaituta.</p> <p>19:30ean jaien hasiera udaletxeko balkoitik.</p> <p>ADINEKOEN EGOITZA</p> <p>Plaza Zaharreko txozna zabaltzea eta brindisa.</p> <p>ELKARTASUN MUGIMENDUA PRESO ETA IHESLARIEKIKO</p> <p>Gauean, Dj Talo (Morau)</p> <p>GAZTELUPE</p> <p>"Hilkar" (zumarraga) + (beste talde bat)</p> <p>GAZTETXEA</p>	<p>16:30ean egoiliarren danborrada.</p> <p>ADINEKOEN EGOITZA</p> <p>Gauean, Dj Manzilla (Rock&roll)</p> <p>GAZTELUPE</p> <p>"Poli-tics" (oñati-soraluze) + "Malenkonia" (oñati)</p> <p>GAZTETXEA</p> 	<p>14:30ean bazkaria.</p> <p>16:00etan argazkia presoiei bidaltzeko.</p> <p>ELKARTASUN MUGIMENDUA PRESO ETA IHESLARIEKIKO</p> <p>16:30ean bola eta karta txapelketa.</p> <p>ADINEKOEN EGOITZA</p> <p>17:00-04:00 DJ jaialdia frontoian: Diego Gonzalez, David MK, Ibailo, Sarrera doakoa.</p> <p>OPEN AIR GUNE MUSIK</p> <p>Gauean, DJ Elvis Caino</p> <p>GAZTETXEA</p>	<p>12:00etan Soinu taldea.</p> <p>ADINEKOEN EGOITZA</p> 

Ontziratuz zaituz kanpaina jarri du martxan Alkarrekineko Jasangarritasun taldeak. Arraindegiko eta harategiko erosketetan tuperrak erabiltzea proposatzen dute, plastikoaren kontsumoa murrizteko.

Zer iritzi duzu tuperraren erabileraz?



Amaia Retolaza

Nik gaur probatu dut lehenengo aldiz eta egia esateko oso eroso iruditzen zait. Klean nabilenean janaria babes-tuago dago gainera. Txarrena izango da erosketak egin behar ditudanean tuperra hartu behar dudala gogoratzea.



Iñaki Retolaza

Ondo iruditzen zait baina badira zailtasunak. Harategian tuper bakarrarekin moldatzea ez da erraza. Guk telazko lauhun poltsa banatu genituen iaz baina ikusi dugu erabilera oso baxua dela. Ohitura aldatzea da kontua baina oso erosoak gara eta tuperrak ahalegin-txoa egitea eskatzen du.



Juan Mari

Lehen ere baziren tuperra ekartzen zutenak eta orain pixka bat gehiago dira, baina oso gutxi. Dena da ohitura hartzea eta horixe da historia. Hala ere, ez da erreza moldatzea bezeroak arrain mota bat baino gehiago eskatzen digunean.



Miren Ortiz

Ondo iruditzen zait. Nik txutxeriak sartzeko erabili dut gaur. Banatu duten tuperra handia da eta gauza dezente sartzeko lekua dago. Arraindegirako erabiliko dut baina harategian erabiltzea zailxeago ikusten dut.

Lehiaketa

Zein da?



Aurreko aleko erantzuna

Josune Egaña, Ingurumen teknikaria

Irabazlea



Nerea Garcia

Saria:

Gaztelupen bi jatordu

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-maila bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Motzean

Aurten ez da San Andreserako igoerarik izango

Lasterketa honek 67. edizioa bete zuen iazko abuztuan eta "uda laguntzaileak bilatzeko sasoi txarra" dela eta lasterketa bertan behera lagatzea erabaki dute.

Arluziaga eta Gisasola palan txapelaldun

Torturen aurkako IX. emakumeen pala txapelketako finala Hiart Arluziagak eta Arrate Gisasolak irabazi dute, 30-24 Irune Gabilondo eta Sandra Mugerzari irabazita. Partiduaren ostetik aipamen berezia egin zieten aurten federatu mailan jokatu duten Amaia Ariznabarreta eta Ainara Muga palariéi.



Iñaki Arribillaga hirugarren Iñaki Ruiz mendi lasterketan

Lehena helmugaratzen Aitor Osa debarra izan zen, emakumeen artean berriz, Nerea Amilibia aiarra. 119 parte hartzailek amaitu zuten lasterketa, tartean bost soraluzetarrek. Iñaki Arribillaga izan zen horietan azkarrena.



Futbito eta pelota txapelketako finalak bihar

Futbol 7ko finalean Fronton Team eta Bolaños lehiatuko dira bihar, 18:30ean Ezozin. Asier eta Iñakiren omenezko XIII. pelota txapelketako finala ere bihar jokatu da, 22:00etan Aranen. Gallas eta Baka, Limoi eta Argoitzeren kontra lehiatuko dira.

Barakaldok Albisua eta Athletic B-k Juaristi fitxatu du

Urteak eman dituzte Eibarren jokatzeko eta aurten 2B mailan jardungo dute, Haritz Albisuak Barakaldoko kamiseta eta Mikel Juaristik txuri-gorriarekin.

Kirol ibilbide parekoa egin duzuela esan daiteke, ezta?

Elkarrekin hasi ginen biok eskola kirolean futbolekin jokatzeko eta 11 urterekin Eibarko Alebinen 2. taldean hartu gintuzten. 10 urtez mailaz maila jardun dugu talde berean jokatzeko eta Eibarko lehen taldearekin debutatzeko aukera ere izan genuen. Eibar B desagertu zenean Haritz Elgoibarren hasi zen jokatzeko eta ni (Mikel) Laudion, biok hirugarren mailan. Laudiorekin Liga irabazi eta mailaz igo ginen. Nik azken urtea 2.B mailan jokatu dut. Ni (Haritz) Elgoibarretik Portugaletera joan nintzen, eta azken urtea bertan egin dut hirugarren mailan.

"Urtebeterako fitxatu dugu eta ahalik eta minutu gehien jokatu nahi ditugu"

Imajinatu duzue inoiz 2.B mailan jardutea?

Gure esperantza zen etapak erretzen joatea, poliiki-poliiki maila gainditzea. Betizalantza zen, "pasatuko gara?". Kadeteetan gero eta zailagoa ikusten duzu futbolekin jardutea. Kanpotik jokalaririk fitxatzen zizuten eta azkenean, Eibarko kanteratik 3. mailara gu biok bakarrik heldu ginen.

Zuen buruak, noiz ikusi zenituzten futbolari moduan?

Jubenilen azken urtean. Urte horretan Eibar B-rekin debutatu genuen eta Euskal Herritik kanpo jokatzeko hasi ginen, talde garrantzitsuen aurka. Beste talde batzuetako ordezkarien deiak jaso genituen eta eskaintza erakargarriak egin zizkiguten: 2B mailan jardungo genuela, fitxaketa onak izango zirela... zentzu baten mundu fantasioso baten ateak zabaldu zizkiguten.



Albisua eta Juaristi, aurten jantziko duten kamisetarekin.

Izen handiko taldeek gainera... Zela sentitzen zarete?

Bi taldeek helburu handiak dituzte. Saikapan ona bilatzearekin batera, futbolariak hazi eta hezteko talde aproposak dira. Talde moduan, denboraldi ona egin, Play Off-a jokatu eta maila igotzea izan daiteke Barakaldok duen erronka. Athletic-ean berriz jokalaririk ondo prestatzea izan daiteke asmoetako bat, aurrerago lehen taldean jardun ahal izateko.

"Momentuz goizetan entrenatu eta arratsaldean eskolara joatea erabaki dugu"

Pertsonalki zein asmo dituzue aurten go denboraldirako?

Urtebeterako fitxatu dugu eta ahalik eta minutu gehien jokatu nahi ditugu, zelaian gozatuz eta taldeari lagunduz.

Non eta nola imajinatzen dituzue zuen buruak hemendik 10 urtera?

Biok majisteritza ikasten dihardugu Eskoriatzan eta etorkizun batean irakasle izatea espero dugu. Futbolariaren bizitza laburra da eta oso aldakorra gainera, egunen batean 2B mailan egon zaitezke eta hurrengoan Preferentean jokatzeko. Momentuz goizetan entrenatu eta arratsaldean eskolara joatea erabaki dugu.

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 esk.
Etelan: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 82

20590 Soraleze
GIPUZKOA

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK JOAHO PLENTZIETARAKI
OGAN ELANDAKO KONFANTZAGATIKI

La Jodedera eta Botanz asteburuan



Jimmy Barnatan Gaztelupeko terrazan.

Orainguz bi aste Jimmy Barnatanek lagatuko aho zapore beroaren ostean izen handiko bi talde izango dira asteburuan Gaztelupeko Vermouth Musikalean. La Jodedera, euskarazko karibetar taldea edo Karibeko euskal taldea arituko da bihar, 19:00etan. Laukote honek euskal kantuherrikoak (Zergatik negar egin, Joxe Migelen Batela...) Kubako doinuetara moldatuta ekarriko ditu eta Kubako erritmoak euskarara ekarri. Domekarako berriz Kanarietan bizi den Rogelio Botanz bakarlarik legazpiarraren emanaldia antolatu dute.

De Cos garaile Teknopolis sarian



"Baserría" gai moduan hartuta, Teknopolisen saritutako irudia

Carlos de Cos zorte oneko boladarenean da. Azken hilabeteotan bost sari nagusi jaso ditu, eta berak irabazi du gainera Santiago – Santa Ana jaietako kartel lehiaketa ere. Zarautz, Zumaia eta Zumarragako argazki rallyetako lehen sariak irabazi ditu, eta "Bergara hiria" lehiaketan txuri-beltzeko lehen saria ere bereganatu du. Bera izan da Eitb-ko Teknopolis saioko maiatzeko argazki lehiaketako irabazlea ere.

FotoNotizia



Festa giroan agurtu dituzte udalekuak

Bi astez herriko kaleetan gora eta behera jardun ostean, gaur agurtu dituzte udalekuak herriko ehunka umek. Soraluze eta bere inguruak ezagutu ez ezik, igerilekura ere joan dira, Lekeitio eta Aulesti bisitatu dituzte eta gau bat etxetik kanpo pasatu dute.

Motzean

Abesbatza eta Txistu taldearen emanaldia gaur

Ezoziko Ama abesbatzak eta txistu taldeak emanaldia eskainiko dute gaur, 20:00etan Antzokian. Lehen abestia Juan Manuel Arruabarrena, Ane Ugaldek eta Jesus Gilek jardungo dute bakarlarik moduan. Aita Gurea kantuan Eider Varela izango da bakarlarik eta Valls del caballero de gracia kantuan Juan Manuel Arruabarrena. Sabin Perez de La-beaga eta Mikel Santiago arduratu dira txistua jotzeaz, Edurne Orbea Silboteaz eta Domentx Uzin Atabalaz.

Irureko jaiak abuztuaren 3an

Eguerdiko 12:30ean ospatuko den mezarekin ekingo diote abuztuaren 3an (domeka) Irure auzoko eguna ospatzeari. Herriko musikariek bazkalarteko tartea girotuko dute eta luntx berezia izango da bertaratzaren direnendako.

Lehiaketak, dantzaldiak eta zezenak abuztuan

Andramari Egunean (abuztuak 15) Erandioko musika bandak emanaldia eskainiko du Plaza Zaharrean eta gauerako Gaubela taldearen erromeria antolatu dute. 16an, ohiko prozesioaren ostetik tortila lehiaketa egingo da eta umeentzat puzgarriak ere jarriko dituzte. 17an, goiz eta arratsalde zezenak izango dira eta tartean, Larreategi taldea kalejiran arituko da. Iluntzean Akelarre txarangak girotuko ditu kaleak.



Etxabe Harategia
Euskal txabalkia Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

SAN ANDRES
ITURGINTZA
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

Zorion agurrak



Mireia Lamariano Nuevas
Ekainaren 21ean
Zorionak polittori!
Muxu haundi bat
etxekuen partez.



Irea Andres Martin
Uztailaren 25ean 3 urte.
Zorionak eta muxu handi bat
etxekoen partez.




Zorionak, Juan eta Irene!
Zuen ezkontza eguna
zoriontsu eta giro bikainean
ospa dezazuela! Muxu pila
etxekuen eta bereziki,
Ander eta Laian partez!



Latif Ur Rahim
Uztailan 15an 6 urte
Zorionak polittori aita, ama,
amama eta batez ere Ghazin
partez.



**Aimar eta Miren Josune
Astigarraga**
Uztailan 26 eta 22xan, 6 eta
13 urte! Muxu pila eta belarri
tirakadak maitte zaittuegunon
partez!



Aimar eta Unax Igartua
Uztailan 5ian 2 urte!
Zorionak aitaxo, amaxo eta
etxekuen partez!



Zorionak polittori!
Plazer bat da zu ezagutu
izana. . . Urte ederra izan
deizula eta muxu haundi
asko, Pil-eko lagunen
partetik!



Gorka Rascón Criado
Abuztuan 6xan 6 urte!
Zorionak txapeldun!
Muxu haundi-haundi bat,
etxekuen partez!



Jon Caballero Mendizábal
Uztailaren 15ean 10 urte!
Zorionak Jon, ondo pasatu
zure eguna eta muxu haundi
bat etxeko danen partez,
bereziki Nagoren partez.



Julen Gabilondo
10 eguzki pareko 10 urte!
Zorionak eta muxu pila
etxekuen partetik!



Laida Sanchez
Uztailan 21ian 3 urte!
Zorionak polittori!
Besarkada eta txokolatezko
muxu pila etxekuen partetik,
bereziki Anderren partez!



Javi eta Izaro!
Uztailan 22 eta 23an urtiak
betetzen ditzuzelako,
zorionak bikote eta muxu pila
asko maitte zaittuztegunon
partez!



**Haritz Nuñez Arana eta
Paula Arana Oregi**
Uztailan 20xan eta 23an
6 eta 14 urte! Zorionak
polittak eta muxu haundi
bat, etxekuen partez!

OHARRA

Datorren alea Santiago – Santa Ana jaietako argazkiekin osatuko dugu. Zorion agurrei eta eskeleki dogozkien tarteak bakarrik mantenduko dira.

Jaiotakoak eta hildakoak



Laia Diaz Bruña



Ramon Lertzundi Orueta
Eligio Pastoriza Rodriguez

**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**
1910etik
943 75 13 45

MABE
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errsabel kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Iturria: San Andres elkarte.

68. edizioa litzateke aurtengoa

1975. urtean heldu zen lasterketa lehenengo aldiz San Andresera. Ordura arte kalean amaitzen zen baina antolatzaileek emozio gehiago emateko helmuga gain baten ipintzea erabaki zuten. Jose Kintanilla izan zen egun horreta bizkorrena (argazkian ageri dena).

Gran Premio Placencia de las Armas izena zeukan orduan lasterketak. 1946. urtean jokatu zen lehenengoz, eta inguruko herrietako txirrindulari lasterketa handienetakoa omen zen, edo bai behintzat sari mamitsuenetakoak zituena. Sociedad Deportivak antolatu izan du eta 68. edizioa zatekeen aurtengoa, jokatuko balitz.



JUAKIN ZABALARI AGURRA

"Gure artean izango zara beti, Jokin"

*Familiaren izenean, eskerrik beroenak
Soraluzeko Txuri Urdinei eta txabolako
bazkideei, eskainitako adeitasun eta
laguntasunagatik.*

Familia



LURDES ARIZNABARRETA
2011KO UZTAILAREN 23AN HIL ZEN
III URTEURRENA

*"Senide eta gertuko
izango gara lekuko
zure lorea gudan bizi da
ez da inoiz ximelduko"*

Etxekoak

Herri bizia gurea!



Jatearen plazera, bertatik bertara



Batzoki
J A T E T X E A



eguneko platera
asteburuko menua
razioak
ogibitartekoak

Jaietan menu berezia

Erreserbak: 943 75 20 16